

# Saskia Sassen

Saskia Sassen irakasle titularra da Columbiako Unibertsitateko Helen eta Robert Lynd soziologia katedran, eta Pentsamendu Globalaren Komite sortu berriaren kidea. Londresko Ekonomia Fakultateko irakasle bisitaria ere bada. Lanik berrienak *Territory, Authority, Rights: From Medieval to Global Assemblages* (Princeton University Press 2006) eta *A Sociology of Globalization* (Norton 2007) ditu. Bost urte iraun duen proiektu bat amaitu berria du UNESCOrentzat; proiektua giza asentamendu iraunkorrei buruzkoa da, eta horretarako ikerlari eta ekintzaile sare bat sortu du 30 herrialde baino gehiagotan. Hainbat argitaletxetako kontseilukidea da, eta nazioarteko zenbait erakunderen aholkularia. Estatu Batuetako Kanpo Harremanetarako Kontseiluaren kidea da, eta baita Zientzien Akademia Nazionaleko Hiri Panelekoa ere, eta Gizarte Zientzien Ikerkuntza Kontseiluaren Informazioaren Teknologien eta Nazioarteko Kooperazioaren Komitearen presidentea izan zen.

**Maidar Zilbeti**  
 — Globalizazioa ulertzeko modua aldatu egin da, dinamika eta subjektu berriak globalizazioaren parte izatera sartu diren neurrian. Nola uler dezakegu gaur egun globalizazioa?

Saskia Sassen — Globalizazioari buruz eman ohi den definizio hedatuena azpimarratu egiten du munduan ematen ari den elkarmenpekotasun gero eta handiagoa eta instituzio globalen eraketa. Definizio mota honetako funtsezko balizko bat honakoa da, globala eta nazionala elkarren baztertzailerak diren bi baldintza izateak. Honek zuzen-zuzenean eramaten gaitu globalerako irabazi batek nazionalerako galera bat dakarrelako ideia, eta alderantzikora, noski. Eta honek lurralde nazionalaren eta elementu nazionalaren arteko halako korrespondentzia bat dakar berekin: erran nahi baita prozesu edo baldintza bat instituzio edo lurralde nazional batean gertatzen bada, ezinbestez nazionala izan behar duela.

Baina globalizazioa ulertzeko modu hau desegokia da zeharo. Globala — bai instituzioen kasuan, bai prozesu, diskurtso-praktika edo irudi-munduetan — neurri batean instituzio eta lurralde nazionalen zati izan daiteke. Globala, nazio-estatua gainditzen duenez gain, beste zerbait ere bada eta.

Globalizazioa ez soilik elkarrekiko mendekotasunaren eta instituzio globalen terminoetan, baizik eta nazionalaren zati gisa ere hartzeak, egundoko agenda jartzen digu parean ikerkuntzarako eta politikarako, neurri handi batean batere zaindu ez den agenda bat alegia. Globalizazioari buruzko azterketek txosten zehatzak jaso behar dituzte, etnografiak barne, dinamika eta baldintza nazional askori buruz; izan ere, baliteke globalak horiei eragitea, eta sarritan, gainera, horiek beroiek ere globala izan daitezke, nazionalaren zati badira ere. Besteak beste hiri globalak aipa ditzakegu, baina baita zenbait estatu instituzio ere. Honek ez du esan nahi hiri edo estatu instituzio hauei buruzko guztia globala denik; bakar-bakarrik, baliteke horiek baldintza eta dinamika global espezifikoak bereganatzea edo ahalbidetzea. Eta globalizazioaren kontzeptzio honek, politikari dagokionez, aukera politiko sorta bat eragiten du, eta hauen elementu nagusia aktore nazionalak (legegileek, auzitegiek, hiritarrek, tokian tokiko GKEek...) nazionaletik abiatuta politika globalak garatzeko posibilitatea da; bide batez, mugitzen ez direnek, mugak zeharkatzen ez edo zeharkatu ezin dituztenek, politika globalean parte hartu ahal izateko aukera iradokitzen du.

Analisiaren eremuko mapa bat egiten ari naiz laguntzen, globalizazioa ulertzeko modu konplexuago hau bere egiten duen azterketara begira. Mapa honetan sartuta dago elkarrekiko mendekotasunaren areagotzera eta ezinbestez globalak diren instituzioetara bideratutako globalizazioaren ideia, baina gainditu ere egiten du hau. Beraz, ikerkuntza lanaren zati batek berekin darama elementu nazionalak nazionalak ez direnekin nahasten dituzten mota honetako globalizazio dinamikien presentzia antzematea gizarte inguru trinkoetan. Egun dauden azterketa teknika gehienak erabil ditzakegu, eta nazionala gogoan dugula garatutako datu-multzoak. Baina emaitzak aztertzeko kontzeptu

**Zein dira  
desnazionalizazioak  
eskain diezazkigukeen eta  
globalizazio kontzeptuak  
ezkututzen dituen klabeak?**

eta interpretazio esparru berriak baliatu behar dira, hau da, nazionala globalarentzako tokietako bat izan daitekeela onartzen duten esparruak. Kontsumoko artikuluen kate globalen zati diren lantegiei buruzko azterketek, globaltasunari buruzko irudi-mundu indibidualak deszifratzen dituzten elkarrizketa zehatzek eta finantza-zentro nazionaletako etnografiek, horiek guztiek lagundu egiten dute ulertze prozesu globaletarako analisi eremua zabalagotzen.

Globalizazioak bi dinamika multzo bereizi daramatza berekin. Horietako batek esplizituki globalak diren prozesu eta instituzioen eraketa dakar; hauen artean daude, esate baterako, Munduko Merkataritza Erakundea, Nazioarteko Moneta Funtza, finantza-merkatu globalak, kosmopolitismo berria eta Nazioarteko Zigor Auzitegia. Dinamika hauek bere jarduerarako baliatzen dituzten praktika eta antolaketa moduek osatzen dituzte eskala globalizat hartu ohi direnak. Eta neurri batean eskala nazionalean aldarrikatzen badira ere, batez ere formazio berri eta, noski, globalak dira.

Badira ezinbestean maila global horretara iristen ez diren prozesuak baina, hala eta guztiz, nire iritziz globalizazioaren zati dira. Prozesu hauek lurralde eta eremu instituzionaletako oso-oso barneko inguruetan gertatzen dira; lurralde eta eremu instituzional horiek, neurri handi batean, termino nazionaletan sortu dituzte munduko zati handi batean, nahiz ez izan mundu osoan. Eremu nazionaletan —egia esateko subnazionaletan— kokatuta badaude ere, prozesu hauek globalizazioaren zati dira, aktore eta prozesu «nazional» askotarikoak lotzen dituzten mugaz gaindiko formazio eta sareak inplikatzeko dituzten neurrian, edota dinamiken edo gai jakin batzuen errepikapena eragiten duten neurrian gero eta herrialde kopuru handiago batean. Prozesu hauen artean sartzen ditut agenda global esplizitu edo inplizitua duten borroka lokalizatu espezifikoean murgildutako mugaz gaindiko ekintzaile sareak, esate baterako ingurumenaren eta giza eskubideen defentsaren arloetan ari diren erakunde asko; estatuen lanaren alderdi jakin batzuk, hala nola merkatu globalak eratzera begira kritikoak gertatzen diren diru eta zerga politika batzuk, gero eta herrialde kopuru handiago batean ari baitira implementatzen, Nazioarteko Moneta Funtzaren eta Estatu Batuetako gobernuaren presio itzelaren pean sarri; nazioarteko tresnak auzitegi nazionaletan erabiltzea, bai giza eskubideei loturik bai Munduko Merkataritza Erakundeari (MME) loturik; irudi-mundu eta politika globalen forma ez kosmopolitik, borroka eta gai jakin batzuetara estu loturik edo bideratuta jarraitzen dutenak eta, hala eta guztiz —modu kontzientean edo inkontzientean—, sarritan oso urrun dauden herrialdeetan kokatutako antzeko beste ahalegin batzuk jasotzen dituzten albo-sare globalen zati direnak berak.

Ba al du loturarik hirien eraldaketak desnazionalizazioak mahai gainean jartzen dituen subjektibotasun berriekin?

Erabiltzen dudana eta hainbat obratan garatu dudana «desnazionalizazio» kategoriak globalaren eta nazionalaren arteko elkarrekintzatik sortzen den eragin komun gero eta nabarmenago bat hartzen du. Elkarrekintza honetako elementu kritiko bat nazionalaren ezaugarria dugun izaera zeharo instituzionalizatua eta trinkotasun soziokulturala da. Zerbaiten ekarpena egin behar du mota honetako zentro instituzionalizatueta. Beraz, globala nazionalaren egituratzeak nazionalaren osagai jakin batzuen desnazionalizazio partzial bat ekar dezake, normalean oso desnazionalizazio espezializatua eta espezifikoa bera, inolaz ere.

Mundu osoko hiri handiak eremu egokia dira globalizazio prozesu multzo zabal batek forma zehatz eta lokalizatuak har ditzan. Neurri handi batean, globalizazioa forma lokalizatu hauei dagokie. Kontuan hartzen badugu hiri handiek, era berean, populazio desabantailatsuen kuota gero eta handiago bat biltzen dutela —etorkinak Europan eta Estatu Batuetan, afrikar-amerikarrak eta latinoak Estatu Batuetan, garapen bidean den munduko megahiritan txaboletan pilatutako hiritar multzo izugarriak—, ikusi ahal izango dugu hiri horiek eremu estrategikoa direla gaur egun, gatazka eta kontraesan sorta zabal batentzat.

Beraz, hiriak kapitalaren globalizazioaren kontraesanetarako tokizat ere har ditzakegu. Alde batetik, botere korporatiboaren kuota neurrigabea bereganatu dute, eta funtsezko zonetako bat dira ekonomia korporatiboari duenaz gaineko balioa emateko; bestetik, desabantailan daudenen kuota neurrigabea bereganatu dute, eta hauei balioa kentzeko funtsezko zonetako bat dira. Elkarrekiko presentzia hau gertatzen den testuinguruan, alde batetik ekonomien transnazionalizazioak igoera ikusgarria izan du, eta hiriak gune estrategiko bihurtu dira, gero eta garrantzi handiagoz gainera, kapital globalarentzat, eta bestetik baztertuak bere ahotsa aurkitu dute, eta hiriari zuzentzen dizkiote bere erreklamazioak. Hau guztia nabarmenduta geratzen da, bion arteko distantzia gero eta handiago dela eta.

Elkarrekiko presentzia hauek borroka eremu bihurtu dituzte hiriak. Hiri globalak dibertsitatea kontzentratzen du. Bere espazioak kultura korporatibo nagusiaren barnean geratzen dira, baina beste kultura eta identitate batzuen aniztasuna ere mantentzen du, etorkinen bidez batez ere. Urruntzea begi-bistakoa da: kultura nagusiak bakar-bakarrik hiriaren zati bat har dezake. Eta botere korporatiboak identitate eta kultura ez korporatiboak «bestearekin» identifikatzen eta, horrenbestez, debaluatzen baditu ere, hauek toki orotan ageri dira.

Hiri globalen mundu sareak osatutako espazioa, potentzialtasun ekonomiko eta politiko berriak dituen espazioa bera, estrategikoenetakoa dugu, agian, identitate eta komunitate mota berriak eratzeko, barnean harturik, inolaz ere, transnazionalak. Tokira bertara bideratutako espazioa da (zona zehatz eta estrategikoetan sartuta baitago) eta, aldi berean, lurraldez gaindikoa (zeren eta geografiaz elkarrengandik hurbil ez baina bai zeharo eta erabat konektatuta dauden zonak lotzen baititu). Sare global honetan ez da soilik kapitalaren transmigrazioa gertatzen, baizik eta baita pertsonena ere, hala aberatsena (hau da, lanesku profesional transnazionala) nola pobreena (erran nahi baita langile etorkin gehien-gehienak). Era berean, kultur formen transmigrazioarako edota azpikultura «lokalen» lurralderatze berri baterako espazio bat da. Garrantzitsua da, era berean, politika berri baterako espaziorik, hots, kultura eta identitatearen politika gaudituko duen politikarako espaziorik ba ote dagoen kontua, nahiz, neurri batean behintzat, balitekeen politika hori aipatu kultura eta identitate horietan txertatzea ere.

Tokiaren zentraltasunak, prozesu globalen testuinguruan, nazioz gaindiko irekitze politiko eta ekonomikoa dakar erreklamazio berrien eraketan eta, beraz, eskubideen eraketan, batez ere tokirako eskubideen kasuan; eta, azkenean, «hiritartasun» forma berrien eraketan eta hiritarren praktika askotan. Hiri globala erreklamazio berrietarako tokizat sortu da: kapital globalarentzat, «antolaketarako kontsumo-artikulutzat» erabiltzen baitu, baina baita hirietako biztanleriarentzako sektore desabantailatsuenentzat ere, hauek, sarritan, kapitala bera bezain nazioartekoak izaten baitira hiri handietan. Hiri espazioaren desnazionalizazioak, eta eztabaida eragiten duten nazioz gaindiko aktoreetan bildutako erreklamazio berrien eraketak, mugako eremutat eratzen dute hiri globala, konpromiso mota berri batentzat.

Hiri globala mugako eremu gisa hartzen duen kontzeptua sakondu al dezakezu? Mugek esangurak eta ekintzak iraultzeko ahalmena dute. «Gatazka eta kontraesanetarako eremu estrategiko» honetan, zein politika mota ari da garatzen eta zein aktore ari dira agertzen?

Globalizazioak eta ICTS berriek ahalbidetu dute hainbat aktore politiko lokal aurrez estatu nazionalentzat soilik ziren nazioarteko esferetan sartzeara. Oposizioko politiko mota pila batek, errebindikazioak planteatzen dituztenek, egituratzen dituzte garapen hauek. Globala izatera iristeak bultzada bat jaso du, neurri batean, ekonomia globalaren azpiegituraren aldetik, eta honexek baldintzatu du gainera, nahiz ekonomia global horixe den, sarritan, aipatu oposizioko politiko horien jo puntua. Gainera, eta nire analisiaren arabera oso garrantzitsua da, irudi-mundu globalak izateko aukerak modua eskaini digu maila geografikoan mugitzen ez direnak ere politika globalaren zati bihurtzeko. GKEak eta herri indigenak, etorkinak eta errefuxiatuak esleipen-subjektu bihurtzen dira giza eskubideei buruzko erabakietan, eta ingurumenaren eta

giza eskubideen defentsaren aldeko borroketan, eta beste asko ere politika globalean gero eta parte handiagoa izatera heltzen ari dira, are zeharo lokalizatuta daudenean ere. Prozesu hauetan, estatukoak ez diren aktoreek parte har dezakete, eta ikusgarri gerta daitezke, nazioarteko foroetan edo politika globalean, banakako eta kolektibo gisa, bakar-bakarrik subiranotasunaz ordezkaturako nazio-estatu baten kide izate horren ikusezintasunetik aterata.

Gaur egun Estatu Batuetako ekonomia politikoa antolatzen duen inperio logika bizkortuaren pean, azaleratzen ari den gizarte dinamika ahalbidetzen ari da desabantailan dauden taldeek eta gutxiengoek politika modu berri bat gara dezaten. Aktore politiko mota berriak ari dira itxuratzen, eta estatuaren eta banakakoaren arteko harremanak aldatzen ari dira. Hiritartasuna estatuaren eta hiritarraren arteko kontratu osoki teorizatu gabekotzat hartzen badugu, eta gure ikerkuntzak osotasun falta horretara bideratzen baditugu, eztabaida politikoari zabalduko diogu atea. Honen parte bat ez dago formalizatuta, eta aurre-politikatzat har daiteke, baina nire ustez hobe da politika informalaren motatzat hartzea, edo oraindik formalizatu gabekotzat.

Hiri konplexu handia, batez ere globala baldin bada, mugako eremu berri bat da. Hemen mundu desberdinetako aktoreak elkartzten dira, baina ez dago konpromiso arau garbirik. Muga historikoa inperio kolonialetako azken muturretan zegoen bitartean, egungo mugako eremua gure hiri handietan dago. Mugako eremu estrategikoa da kapital korporatibo globalarentzat. Desarauketa behartuaren lanaren zati handi batek, pribatizazioak eta gobernu anfitrioiaren zerga eta diru politika berriek, zerikusia zuten muga historikoko lehengo «gotorleku» militarren baliokidea eraikitzeke lanabes formal berrien sorrerarekin; baliokide hori zera baita, mundu osoan hiriek, eragiketa globaletarako espazio bat bermatzearren, behar duten tresna arautzailea.

Baina mugako eremu estrategikoa da, halaber, boteretik ez dutenentzat, desabantailan direnentzat, kanpotarrentzat, baztertutako gutxiengoentzat. Desabantailan daudenean eta baztertuek lor dezakete hiri horietan bere presentzia agerikoa izatea, boterearen aurrez aurreko eta elkarren aurreko presentzia baita. Eta honek politika mota berri baten aukera erakusten digu, aktore politiko mota berrietan bildu batena alegia. Kontua ez baita boterea edukitze edo ez edukitze hutsa. Badira jarduteko abiapuntutzat har daitezkeen oinarri hibrido berri batzuk. Emaizta hau hiri guztietan ikusten ari gara politika informalaren elaborazioan.

Hiri garrantzitsuetan globalizazioarekin lotutako espazio ekonomikoen itxuratze berriak hainbat ondorio izan ditu emakume eta gizonezkoentzat, gizonaren eta emakumearen kulturentzat, gizonari eta emakumeari bideratutako botere eta botere hornidurarako formentzat.

Politika informalak eta ekonomia informalak ba al dute zuzeneko harremanik? Politika informalaren, ekonomia informalaren eta emakumeen arteko harreman zuzenik ikus al daiteke, azken hauek aktore ekonomiko zein politikotzat harturik?

Globalizazioarekin eta informalizazioarekin oso-oso gutxitan lotzen den beste lokalizazio batek komunitatea eta familia berriro sartzten ditu hiri globaletako espazio ekonomiko garrantzitsuetan. Nire iritziz, honi dagokionez informalizazioa sistemaren goiko geruza desarautzearen kostu baxuko baliokidea da, sarritan femininotua bera gainera. Desarautzeak bezala (esate baterako desarautze finantzarioak), informalizazioak malgutasuna sartzten du, arauketaren «kargak» arintzen ditu eta kostuak murrizten ditu —kasu honetan, batez ere lanekuaren kostuak—. Informalizazioa, oso garapen altuko herrialdeetako hiri garrantzitsuetan —esate baterako New York, Londres, Paris edo Berlinen—, hiri horietan eskari efektiboa duten hainbat jardueraren degradaziotzat har daiteke; baina, era berean, balio galera eragiten duen lehia itzela ere bada, dituen sarrera kostu txikiak eta enplegu forma alternatibo urriak direla eta. Informalizazioa merkantziak eta zerbitzuak kostu baxuago batez eta malgutasun handiagoz produzitzeko eta banatzeko modu bat da. Honek are balio galera handiagoa eragiten die jarduera mota hauei. Etorkinak eta emakumeak aktore garrantzitsuak dira hiri hauekako ekonomia informal berrietan. Jarduera horien informalizazio kostuak zurgatzen dituzte.

Hiri garrantzitsuetan globalizazioarekin lotutako espazio ekonomikoen itxuratze berriak hainbat ondorio izan ditu emakume eta gizonezkoentzat, gizonaren eta emakumearen kulturentzat, gizonari eta emakumeari bideratutako botere eta botere hornidurarako formentzat. Lan merkatuaren berregituraketak lan merkatuak familientzat eta komunitatearentzat dituen eginkizunen aldaketa bat ekarri du berekin. Emakumeak eta familiak entitate gisa ageri dira orain; entitate hauek, gaur egun, lan merkatuaren dinamikan onartzen dituzten forma jakinen teorizazioaren zati izan behar dute.

Eraldaketa hauek hainbat aukera jartzen dute mahai gainean, aukera mugatuak badira ere, emakumeen autonomia eta botere

hornidurara begira. Esate baterako, azter dezakegu ea hiri ekonomia aurreratuaren informalizazioaren gorakadak emakumeen eta gizonen arteko harreman ekonomikoen motaren bat berrituratu ote duen. Informalizazioaz, auzoa eta familia jarduera ekonomikoaren gunetzat ageri zaizkigu atzera. Eta egoera honek bere aukera dinamikoak planteatzen ditu emakumeentzat. Informalizazioaren bidez gertatzen den kategoria ekonomikoaren jaitsierak «aukerak» sortzen ditu sarrera maila baxuko emakumezko langile eta enpresariantzat eta, horrenbestez, berrituratu egiten ditu emakumeak dauden lan eta famili hierarkietako hainbat arlo. Hau zeharo nabaria gertatzen da tradizionalki gizonerantz bideratutako kultura duten herrialdeetatik etorritako emakume etorkinen kasuan. Literatura asko eta asko dago, erakusten diguna ezen emakumearen lan ordaindu erregularrak eta beste eremu publiko batzuetan sartzeko aukeren hobekuntzak emakumearen beraren genero harremanetan ondorio garrantzitsuak dauzkatela. Emakumeek autonomia pertsonal eta independentzia handiagoa lortzen dute, gizonezkoek espazioa galtzen duten neurrian. Emakumeek etxeko aurrekontuen eta beste erabaki batzuen gaineko kontrol handiagoa eskuratzen dute, eta eragin handiagoa, halaber, etxeko lanetarako gizonen laguntza eskatzeko unean. Gainera, zerbitzu publikoetara eta beste baliabide publiko batzuetara iristeak gizarte nagusian txertatzeko aukera ematen die; oso ohikoa da prozesu honetan bitartekari lana egiten duten familiako pertsonak izatea.

Baliteke emakume batzuek beste batzuek baino onura handiagoak ateratzea zertzelada hauetatik; azterketa gehiago behar da klaseak, heziketak eta sarrerek generoka bereiziriko emaitza hauen gainean duten eragina zehazteko. Familiako emakumeek, ordaindutako lana dela eta, eskuratzen duten botere handiago horrez gain, bada azpimarratzeko moduko beste emaitza bat ere: eremu publikoan duten partaidetza handiagoa eta aktore publiko gisa agertzeko aukera.

**Esan al diezagukezu esfera publikoaren zein prozesutan aritzen den emakumea aktore publiko bihurtzen?**

Emakume etorkinak oso aktibo dauden bi arlo ditugu: laguntza instituzioak, hala publikoak nola pribatuak, eta komunitate etniko/etorkina. Emakumea migrazio prozesuan sartzeak sendotu egiten du finkatzeko aukera, eta lagundu, bide batez, etorkinek bere komunitatean eta estatuaren aurrez aurre partaidetza handiagoa izan dezaten. Esate baterako, emakumezko etorkinek gizarte eginkizun publiko aktiboagoak bereganatzen dituzte, eta honek are sendoago egiten du familian eta finkatze prozesuan duten estatusa. Emakumeek parte hartze handiagoa dute komunitatearen aktibismoan eta komunitatearen osaketan, eta gizonen posizioez bestelako batzuk hartzen dituzte estatuarekiko eta ekonomia zabalagoarekiko. Eta ohikoagoa da emakumeak berak izatea bere



familien legearen aurreko ahultasunari aurre egiten diotenak eta horren kontra borrokatzen direnak, familientzako gizarte zerbitzuak eta zerbitzu publikoak bilatzeko prozesuan. Emakumearen partaidetza handiago horrek emakumeak berak aktore ahaltsuago eta ikusgarriago gisa sortzeko eta lan merkatuan duen eginkizuna ere agerikoagoa izatera iristeko posibilitatea iradokitzen du.

Nolabait, bi dinamika desberdinen konjuntzio suerte bat ematen da, hiri globaletan emakumeak duen egoeran, lehen deskribatuan. Alde batetik, langile klase bat dira, ikusten ez dena eta boterarik ez duena, ekonomia globala osatzen duten sektore estrategikoen zerbitzura. Ikusiak ez izate honek eragotzi egiten du antolaketa ekonomikoaren aurretiazko formatako «lan aristokraziaren» gaur-gaurko baliokidea izango genukeenaren antzera ager daitezten —aurretiazko forma horietan, sektore aitzindarietan soldata txikiak ari zen langilearen posizio horrek bazuen ondorio bat, langile horri berorri boterea ematea hain justu ere, sindikatuetan antolatzeko aukerari esker—. Bestetik, soldata eta nominetarako aukera (soldata horiek txikiak izan arren), lan-eskaintza gero eta emakumezkoagoa izatea, eta informalizazioaren eraginez enpresa-aukeretan ere emakumezkoen pisua gero eta handiagoa izatea, hauek guztiak emakumea dagoen genero-hierarkiak aldatzen dituzten elementuak dira.

**Zer gertatzen da feminismoarekin lotutako kontuekin? Deskribatu duzun koadroak eskaintzen al digu helburu feministak lortzeko genero teknologia berririk?**

Egon bada estrategiko deitzen diodan eta hiri globalean begi-bistakoa izatera iristen den bereizte mota bat. Produktzioaren esferaren zein gizarte erreproduktzioaren bidez gertatzen da. Oinarri kritikoa aldagaia zera dugu, hiri hauek funtsezko azpiegitura direla prozesu ekonomiko globaletarako zerbitzu espezializatuak, finantzaketa eta gestioa eskaintzeko. Hau da, azpiegitura honetako funtsezko elementu guztiek erloju baten makineriaren antzera funtzionatu behar dute. Funtsezko elementu edo osagai horietako bat lan-esku profesionala da. Genero-erakundearen hornidura estrategiko izatera iristen da, globalizazio enpresen funtzio espezifiko batez, hots, kultur bitartekaritza. Emakume profesionalak agertzen ari dira, funtsezko langile motatzat, egokitzen hartzen baitituzte kultur alde eta muga egundokoak gaindituz konfiantza sortzeko. Enpresa edo merkatu baten eragiketen globalizazioak berekin dakar hainbat eremu (hala nola arloak, herrialdeak, kontsumitzaileen mundua) enpresa, praktika eta arau mota berrietara zabaltzea. Eta, halaz, kultur bitartekaritza mota hau oinarrikoa gertatzen da, globalizazio ekonomikoa inplementatzearen gainditu behar diren konfiantza falta eta erresistentzia direla eta.

Genero-erakundearen hornidura estrategiko izatera iristen da hiri globalean, oso kalifikazio altuko lan-esku profesionalaren

erreproduzio sozialera begira. Horretarako arrazoiak bi dira. Bata emakume profesionalen eskari gero eta handiagoa, eta bestea profesionalak, bai gizonezkoek bai emakumezkoek, hirian bizi izateko erakusten duten joera bizia, bere lanaren ordutegi luzeagatik eta gainean daramaten erantzukizun maila zorrotzagatik. Honen guztiaren emaitza zera dugu, hirietan «emazterik gabeko» familia profesionala deitu ohi diodan horren ugaltze bat. Eta hemen benetan garrantzitsua falta den «emaztea» funtsezko faktorea izatea da, hain zuzen ere familia profesionalak sektore globalizatuen azpiegiturarako erabakigarriak diren eta erloju baten antzera funtzionatu behar duten une batean. Goi mailako profesionalak eta goi mailako kargudunei hiri globaletan ezartzen zaizkien eskakizunak hain dira gogorak, ezen bizimoduak eta etxeko eginkizunak gestionatzeko ohiko erak desegoki gertatzen baitira. Ondorioz, munduko hiri global guztietan «zerbitzari klase» deituetarako itzultze bat ari gara ikusten; klase horiek, nagusiki, emakume etorkinez eta migratzaileez daude osatuta.

Gai honi buruzko ikerkuntzaren zati handiena etxeko emakumezko langile hauen lan baldintza penagarrietan, esplotazioan eta ahulune askotarikoetan bildu da. Hau horrela da. Baina gai honetan, analisi mailan, pisua duena hiri hauetako sektore globalizatu aitzindarientzat egoki funtzionatzen duten familia profesionalen garrantzi estrategikoa eta, beraz, «zerbitzari klase» mota berri honen garrantzia da. Beste espazio batzuetan garatutako hainbat arrazoi dela eta, emakume etorkinek eta gutxiengoetakoek osatzen dute lan mota honetarako iturri baliatuena. Emakume horiek ekonomian sartzeko duten moduak elementu ikusezin bihurtzen ditu; emakumezko hiritar etorkina edo gutxiengo batekoa izateak erraztu egiten du informazio globalaren ekonomian, hau da, industria aitzindarietan, eginkizun garrantzitsua duen emakumezko langilearen eta —ekonomia industrializatueta historikoki gertatu den bezala— botere hornitutako laneskua izatera heltzeko aukeren arteko lotura haustea. Ildo honetatik, «emakume etorkin» kategoria bere herrialdetik kanpo bizi den proletalgoaren baliokide sistemiko gisa ageri da.

## Erreferentziak

Gai hauei buruzko bibliografia kontsultatu nahi izanez gero: Saskia Sassen, *The Global City: New York, London, Tokyo*, 2. argitalpena (Princeton: Princeton University Press, 2006); Saskia Sassen, *Territory, Authority, Rights: From Medieval to Global Assemblages* (Princeton: Princeton University Press, 2006); Saskia Sassen, *Cities in a World Economy*, 3. edizioa (Thousand Oaks, Kalifornia: Pine Forge Press/Sage Publications, 2006); Saskia Sassen, *A Sociology of Globalization* (NY: W. W. Norton 2007).



